

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA


Atal honetan gure enpresaren produktua nori eskainia dagoen deskribatuko dugu.



Gure produktua komunikatzeko teknologia berriak erabili behar dituzten hirugarren adineko jendearentzako pentsatuta dago, 65 urtetik gorako pertsonentzat hain zuzen ere. Gainera, oso zaila da familia eta lagun guztiak herrian edukitzea, horregatik, komunikatzeko teknologia behar dute eta erabiltzerako orduan zailtasunak izaten dituzte.

Merkatu masiboan pentsatutako mugikorra da, hau da, erosiko duten pertsonak antzerako arazoak eta beharrak dituzten talde handi bati eskainia dago. Gehien bat pertsona helduei, eta batez ere beraien bizitzan zehar teknologia berrieekin lan egin ez dutenentzat.

Gure produktua erosiko duten bezeroak Europar Batasunean bizi diren helduak izango dira, bertako hizkuntza ofizialetan sortuko dugulako gure produktua, hau da, Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Portugesa, Frantsesa, Alemana, Italiara, Bulgariara, Txekiera, Kroaziera, Daniera, Suediera, Norvegiera, Greziera, Errumaniera, Turkiera eta Nederlandera.



Gure bezeroen batezbesteko adina 75 urtekoa da. Bezero hauek gaur egun dauden teknologia berrieekin komunikatzeko zailtasun asko dituzte eta ondorioz, ezin dira bere lagun maiteekin harremanetan egon. Etxean bakarrik daudenez aspertu egiten dira eta asko gustatuko litzaieke senideekin

harremana izatea komunikabide erraz batetik.

Gainera, lagun artean goizeko kafea hartzea gustatzen zaie, baina, teknologiekin dituzten arazoek oztopatu egiten dute plana eta soilik kalean elkartzen direnean egiten dute zerbait elkarrekin.

Laburbilduz, gure produktua teknologia berriekin zailtasunak dituzten pertsona helduentzako dago sortua.